



Kilometroak

20022KO URRIAREN 2AN IBARRAN

 *irribarra*



2022/2023 IKASTURTEA

ERDI MAILAK

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia eta parafarmazia
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

GOI MAILAK

- Osasun dokumentazioa eta administrazioa
- Diagnosi irudia eta medikuntza nuklearra
- Gizarteratzea



943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.eus



**DISTRIBUCIONES
LOPETEGI, S.L.**

Sistema de limpieza integral

943 69 34 28 www.lopetegi.com

BOINAS
ELOSEGUI

TOLOSA 1858



**Ibarrako
Udala**

*Ibarra
Kilometroekin bat!*



ZEIN EDERRA IZANGO DEN!



AMAIA LASA MUÑAGORRI

Ikastolako lehendakaria

Jada hilabete batzuk badira Ibarren ospatuko den Kilometroak jaiari hasera eman geniola, iazko azaroaren 26an izan zen aurkezpen ekitaldiarekin.

Urduritasuna, zalantzak, ilusioa.. erronka handi honi erantzungo al genion galdetzen genion geure buruari ikastolako bileretan. Eutsi genion ekimenari, ordea. Beti ere argi izanez Ibarako herriaren Kilometroak izatea nahi genuela, herritar eta herriko eragileekin egindako bidea.

Gogo eta irrika horrekin hasi ginen. Gainera, Kilometroak berezia izango da, egun hau bermoldatzeko hausnarketen ondorengoko lehen egun handia. Bide honetan ikasitakoak jaso, elkarlanerako ereduak gureganatu eta ideia frexkoak txertatuaz, lanketa berezi bat egin ondoren, urtea nola antolatu eta zein ekintza egin jorratzen aritu gara. Eta zein ederra izaten ari den, zein ederra izango den! Urte guztiko ekimenean erakusleihu izatea nahi dugu urriaren 2ko Kilometroak eguna ere.

Kilometroak urte honetan, gure ikastolaren balio eta ideia batzuei protagonismo berezia ematen ari gara. Batetik, Euskal Herriari zer garen erakusteko. Bestetik, bide honetan aurrerapausoak emateko. Hala, berrikuntza, gastronomia eta kulturantzatasuna sakonki lantzen ari gara. Kilometroak berritzailea izango da aurtengoa, berrikuntza delako Uzturpe

Ikastolako ikur ere, metodologia ikuspegitik beti duelako ezinegona gauza berriak aplikatzeko. Bestetik bertako jantokiari ere garrantzi berezia emango diogu, bertako produktuak sustatu eta inguruan eragiteko. Ibarako ikastolan duela 25 urte erabaki baitzen bertako sukaldaria jartzea, janaria bertan prestatzeko. Sukaldariak egunero erosketak egiten ditu herriko saltokietan, bertako ekonomia sustatuz. Beraz, Kilometroetan bertako jantoki hori islatu nahi dugu eta horretarako gastronomiak garrantzi handia izango du. Noski! Ibarako bereizgarria den piparra ere ez da faltako, herriko baratzeek ere protagonismoa izango dutelarik. Eta azkenik, gure Kilometroaken ardatz nagusienetako beste bat, kulturartekotasuna da, jatorri desberdinetako jende asko dagoelako Uzturpe Ikastolan eta hori oso aberatsa da; euskal kultura konpartitzeaz gain, beste kulturak ezagutu nahi baititugu. Eurak ere, Kilometroak-en parte izatea dugu helburu. Eta hau dena zuekin konpartitu nahi dugu Kilometroak egunean ere. Urriaren 2an Ibarren topatuko gara!

Herria herriago egin nahi dugu Kilometroak-i esker, auzolanean, herritar guztiak elkartu eta gure onena erakutsi nahi dugu auzolan erraldoi honetan. Eskerrak ematea besterik ez zait geratzen: milaka esker urte osoan eta egunean bertan lanean ariko diren bolondres guzti horiei.

Irribarra, 2022ko Kilometroak jaiaren leloa. Lehenengoz entzun nuenean gustura jaso nuen Uzturpe Ikastolako komunitateak proposatutakoa. Izan ere azken bi urteak ez dira xamurrak izan eta irribarre faltan ginela iruditzen baizitzaidan.

Bizi ditugunak ez dira garai errazak eta etengabeko aldaketan baino, erabateko aldaketa bizi dugula esango nuke. Bai gizartearen baitan bizi dugun balore aldaketarengatik, bizi dugun kulturantzatasunarengatik edo amalurrak berak erakutsi dizkigun mugengatik, besteak beste.

Honen aurrean aukera bat baino gehiago badaude ere batek kezkatzen nau. Orain artekoa hobea izan denaren iritzipean bertan goxo gelditzea eta gure baitan eman daitezkeen aldaketei bide ez ematea. Aldagai desberdinak kontuan hartuta (identitate galera, klima, inmigrazioa, globalizazioa...) ondorengo urteak ez direla errazak izango aurreikus dezakegu. Baina beldurretik eraikitzea zaila denez eman diezaiozun gure irribarreari toki bat eta gure baitako aldaketek bide errazagoa izango dute.

Kilometroak ikastolen mugimendua bezala heldua da dagoeneko eta heldutasun horretatik heldu dio aldaketaren beharrari, orain inoiz baino beharrezkoago dena. Eta azken bi urteotan zantzu txiki batzuk ikusi baditugu ere, Uzturpe Ikastolak antolatutako jaia berrikuntzekin dator. Hainbestetan aipatu dugun jai eredu berriari bide eman ez, irribarrez.

Kilometroen eredu berria komunitatea sendotzeko ariketa bat da, ikastolek bere baitan dituzten berezko ezaugarrietan murgiltze ariketa. Komunitatearen parte hartzeari bultzada eman nahi diogu, eskatu-eman eredutik haratago, benetazko parte hartzeari tokia eman. Auzolanean eraki nahi dugu eredu berria Gipuzkoako Ikastolak, euskaraz eta Euskal Herri osoko ikastoletako komunitatearekin partekatu nahi dugu. Baita gure inguruan ditugun hezkuntza, euskalgintza eta kultur eragileekin ere. Urte osoan zehar garatutako ekimenek hau dena praktikan jartzeko aukera ematen digute.



NEKANE ARTOLA

Gipuzkoako Ikastolako lehendakaria

Ikastolen mugimenduak erronka potoloak ditu esku artean: Ikastolen VII batzarra, EAEko hezkuntza legea... Ikastolok gure buruari egin diezaiokegun mesederik handiena da dugun esperientzia baliatuz etorkizun hobe eta euskaldun bat bermatzea gure komunitateari zein euskal gizarteari. Gogoeta bultzatu, erabaki eta elkarrekin ekin. Horretarako ditugun tresna denak baliatu behar ditugu, jaiak barne.

Aldaketa garaia bizi dugula jakitun ekin diezaiozun erronka honi heldutasunez eta irribarrez, irriz edo barrez. Irri egiteak emango baitigu ditugun beldur edo bertigoari aurre egiteko indarra eta ondokoak erakartzeko aukera.

GIPUZKOAK

BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**Europar
desberdintasun
maila txikienetariko**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa

KILOMETROAK 2022

EGUN BAT

(ETA 12 HILABETE)

Parte-hartze prozesu batekin hasi ginen nolako urtea nahi genuen irudikatzen. Herriko plazan pintxo tertulierekin abiatu ginen, herritarrekin batera urtea eta eguna bera irudikatzeko. Ikastolako ikasleekin ere dinamikak burutu genituen, eta hala, gure egitasmoetarako oinarria ezarri genuen.

Urriaren 2a egutegian dago hasieratik, eta hasieratik ere hainbat ekitaldi eta egitasmo ere burutzen ari gara. *Kilometroak 2022* ez da egun soil bat, askoren bilduma baizik. Hauexek mugarriak.

AURKEZPEN EKITALDIA

Noiz: 2021-11-26

Zer: *Kilometroak 2022* aurkezteko dantza, antzerkia eta musika zuzeneko emanaldia Belabieta kiroldegian. Zirrara eta emozioz beteriko eguna izan zen, *Kilometroak* urtearen hasiera.



INFINITU IRRIBARRA

Noiz: urtean zehar

Zer: mundu mailan Euskal Herria eta euskararen aldeko atxikimenduak jasotzeko egitasmo digitala. Egin irribarra eta igo zure argazkia munduko edozein txokotatik. Zenbat irribarra ote daude zuen herrian? Ikusi hemen:

<https://kilometroak.eus/infinitu-irribarra>





KILOMETROAK TXIKIA

Noiz: 2022-03-05

Zer: Modu herrikoi batean, covid-aren 6. olatua sahiestuz, Kilometroak txikia antolatu genuen herrian. Bertan haurrak izan ziren protagonista eta herri guztia ilusioz eta irribarrak koloreztatu genuen.

BERTSO AFARIAX5

Noiz: 2022-04-01

Zer: 5 bertso afari egun berdinean, Ibarra, Leaburu eta Gazteluko 5 elkartetan, 10 bertsolariren bertsoekin. Euskal kulturako ikur bat dena, kantua eta bapatekotasuna, bertako produktuekin egindako jakiekin ezkondu. A zer gozatua!

Mila esker, Maia, Enbeita, Peñagarikano, Akizu, Ibarzabal, Gaztelumendi, Iguaran, Lizaso, Elustondo eta Zubeldia!



MILIMETROAK JAIA ORERETAN

Noiz: 2022-04-26

Zer: Kilometroak-en helburua ere bada, urte osoan zehar Kilometroak beste eskualdeetara zabaltzea. Aurten, Oarson eta Tolosadean burutu ditugu Milimetroak.


Gernikako bonbardaketako urteurrenean, Ibarra eta Oarsoko 3 ikastoletako ikasleak bildu eta Picassoren "Gernika" kuadroa berrinterpretatu zuten beste obra berri bat sortuz. Arratsaldean ekitaldia gogoangarria izan zen Erreterian, musikari, dantzari eta abarrekin.

HERRI KIROLAK IBARRAN

Noiz: 2022-03-19

Zer: Almintza herri kirol elkartearekin batera, herri kirol erakustaldi polita izan genuen plazan. Ondoren, herri afaria egin genuen.





IRRIBARTEA

Noiz: Apirila-maiatza

Zer: Euskal Herriko 41 eskultoreren obren erakusketa izan genuen Ibarren. Artea gure kulturako parte eginez, ikasleekin eta irakasleekin lanketa desberdinak burutu genituen.



IRRIBARRA DENDA

Noiz: Ikasturtean zehar

Zer: Kilometroak arropa eta osagarrien denda urte osoan irekita izan dugu herriko bolondresi esker. Gainera, hainbat irteera egin dira Gipuzkoan barrena. Iribarra ere moda izan daitekeelako.



MUNDUKO GASTRONOMIAK IBARRAN

Noiz: 2022-05-13

Zer: Munduko hamar sukalde eta hamaika istorio ezagutzeko parada. Ibarako ikastolako komunitatea osatzen duten jatorri anitzetako familien gastronomia postuak izan genituen herrian. Gastronomiaren bidez kultura desberdinak harremanetan jarriz.



MILIMETROAK TOLOSALDEA

Noiz: 2022-05-20

Hilabete batzuk lehenago, gure ikastolako ikasleek eskualdeko beste 4 ikastoletako ikasleei Ibarra erakutsi zieten. Irribarra denda ezagutzeaz gain, herriko dendariekin egon eta pipar ibilbidea eginez Ibarra piparraren historia eta kultura erakutsi zizkieten. Gero, Tolosaldeko gazteek, Ikastolen aldeko Euskal Herriko beste jaietako ikastoletako ikasleei Ibarra aurkeztu ziren modu telematikoan. Maiatzean denak elkartu ziren, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako 400 ikasle.

Euskal Herria mapetan erakustetik, errealitatean bizitzeko ekimen polita. Ikasleen arteko harremanak bultzatzea genuen helburu, euskal hizkera desberdinak nahastea eta Euskal Herria aldarrikatzea.

KANTUJIRA KILOMETROAK-EN ALDE

Noiz: 2022-05-21

“Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko” esaerak, eta herriko kaleetan herriko koroa eta Egiako koroa batera, Euskal Herrian ezagun ditugun hainbat abestirekin jendea kantatzen jarri zuten, mahaiaren bueltan jarraituaz.



ORIENTAZIO PROBA KILOMETROAK-EN ALDE

Noiz: 2022-05-22

Bidetxur herriko mendi taldeak antolatuta, orientazio proba herrikoia egin zen familia eta helduentzat. Herriko taldeekin elkarlana genuen helburu, eta oso polita izan da guztiok batera aritzea.





UZTURPEKO IKASLE OHIEN BAZKARIA


Noiz: 2022-05-28

Zer: Zero kilometroko otordua zero kilometroko ikasleentzat. 52 urte ditu gure ikastola txikiak, baina gaur egun herriko ikastetxe bakarra izaki, oso txertatua dago herrian. Berrehundik gora ikasle ohi elkartu ziren mahaiaren bueltan, oroitzapenak bergogoratu eta aspaldiko lagunekin elkartuz. Berrero ere, gastronomia batzordeak sekulako otordu goxoa prestatu zuen.

IRRIBARRA BIDEO-KLIPAREN AURKEZPENA

Noiz: 2022-05-28

Zer: Ibarraiko Elizan aurkeztu zen Kilometroetako abestia eta bideoklipa. Adin desberdinetako herritarrak elkarturik, emozioak airean, dozenaka irribarrak alaitu zuten herria. Herritarrek egindako abestia izan da, eta hori ere, eskertzekoa da





IZASKUN KULTURA

Noiz: 2022-06-04

Zer: Mendia, musika eta gastronomia uztartzen dituen jaia. Esperientzi gozagarri bat sortu eta eskaini genuen, bertako produktuei balioa emanez, eta jaiaren parte, mendia eta musika uztartuz. Familia giroan edota kuadrilan, jendeak gozatzea genuen helburu ekimen berritzaile honekin. Goizean talde mugatuetan (50 pertsona 2 taldetan) mendi itzulia hasiko zuten Belabieta aldera. Bidean zehar, txoko desberdinetan, Loatzo musika eskolako ikasleek abestiak zituzten, dantza emanaldik ez ohiko kokalekuetan eta Irene Caminos-ek ere bizikleta erakustaldia egin zuen. Posturen bat izan genuen zerbait jan eta bidea errezagoa egiteko. Arratsaldean kontzertu bikainarekin gozatu genuen.

TONBOLA

Noiz: 2022-06-25

Zer: *Kilometroak* tonbola Tolosan.

IRRIBARRA TABERNA

Noiz: 2022-08-23/27

Gune berezi bat sortu genuen, herritar guztientzat. Kalitatezko zerbitzuan oinarritua eta giro jatorra sortuta. Musika, eta gastronomia informala, bertako produktuetan oinarrituta.

PIPAR IBILBIDE BIZIA

Noiz: 2022-09-24/25

Ezagutu Ibarra piparraren inguruko historia eta kultura ibilbide bizi batean, non musika, antzerkia, dantza uztartu... eta nola ez, pipar dastaketak burutuko ditugun.



Baratze herria dugu Ibarra, piparrari esker mapan kokatua. Produktu honen kuriositate eta ezaugarrietan barneratuko gara eta aire libreko museo batean bilakatuko dira pipar sailak eta gure paisaia. 2.6 kilometroko ibilbidea izango da. 30 laguneko taldeetan egingo da gida batekin, eta bidean zehar, geldialdi edo guneak egongo dira: musikariak, dantza, antzerkia... Esperientzia turistikoa honetan, ikasi eta gozatu egingo dugu. Kulturaz gozatzeaz gain, piparraren urteko zikloak ikasiko ditugu, anekdota eta istorioak ezagutu... eta piparra formatu desberdinetan dastatuko dugu. Baratzean zuek bildutako piparrak ere jango dituzue. Animatuko al zarete?

Nola apuntatu?

<https://kilometroak.eus/ekitaldi-izenematea>





MIKEL EGIBAR ETA JOSU OZAITA
KMK 2022ko koordinatzaileak

KMKko koordinatzaile orokorra bata eta KMK2022koa bestea; Mikel Egibar eta Josu Ozaita ari dira askotan ikusezina den lana egiten. Gipuzkoako ikastolen festa burutu ahal izateko, alabaina, ezinbestekoa dugu. “Eredu berria” zer den galdetu diegu: ez omen da hain berria, baina aurtengoan jarri da abian lehendabiziko aldiz.

KMK 2022 desberdina, “berria” omen da.

Mikel: 2015an Kilometroak egitasmoko koordinatzailea izateko proposamena jaso nuen eta, proposamen horrekin batera, beste bat ere jaso nuen: Kilometroak berritzeko prozesu partehartzailea abiatzea. Gogoz heldu nion ardurari eta ia bost urte erabili ditugu Gipuzkoako ikastoletako eragile guztien artean ondorioak adosteko. Ondorio horiek hamar premisatan oinarritzen dira. Prozesu horretako aipatu beharreko lehenengo ezaugarria zera da, Kilometroak euskal jendartean duen dimentsioa. 1977an abiatu eta egun, urte bat ere kale egin gabe, jaia antolatzen jarraitzen dugu. Hori dela eta, Kilometroak euskal gizarterako

benetako kapital sozial eta kulturala dela azpimarratu nahi dugu. Kapitala kolektiboa den neurrian, bere hasieran jaia antolatzeko zeuden arrazoiek bere horretan dira, oraindik ere. Nolanahi, ez dago zalantzarik jendartea aldatu egin dela eta jaia egiteko erak eta ohiturak aldatzen joan direla urtez urte.

Josu: Urte osora zabaldu dira ekimenak: ekitaldi bereziak sortu dira, gure ikastolaren balioak agerian utzi eta sakontzen jarraitzeko balio izan dutenak, jai giro batean. Ibarako ikastolak balio indartsuak ditu, bertako jantokia lantzen du, kultur-artekotasun anitza du, berrikuntza oso presente du. Ekimen guztietan eta egunean bertan ere, hori islatu nahi izan dugu.

Aldatzeko beharra al zegoen?

Mikel: Hausnarketa kezka eta konpromiso batetik dator: jaiaren kalitatea nola hobetu, elkarrekin, kulturarekin eta ingurugiroarekin esperientzia positiboak izan ahal izateko.



Josu: Nire ustez, festa bera antolatu eta bizitzeko oinarri bat jarri du hausnarketak. Orain kilometroak jaia prozesu gisa bizi da, ez zerbait ukiezin edo mugiezina balitz bezala, baizik eta herri antolatzailearen arabera moldakorra dena. Beste puntu indartsua ekimenen sormena da. Ikuspegi ekonomikoa baino, ekitaldi bakoitzean ikasle eta herritarrak parte-hartzaile eta aktore izatea da garrantzitsuena, eta ez ikusle soila izatea. Ekimenek bizipen eta emozioetan eragiten dute, bai eta arrasto luzeagoa utzi, eta honek eragin handiagoa du. Jaiaren balio kualitatiboan jarri da azpimarra.

Pandemia etsai amorratua izan duzue. Nola eragin du zuen jarduna?

Mikel: Pandemiak guztioi eragin digu eta horregatik 2020an Amasa-Villabona-Zizurkilen antolatu nahi genuen eredu berrian oinarritutako jaia ez zen guztiz horrela izan. Hala ere, ordurako eztabaida kontzeptuala dezente aurreratuta zegoen eta egoera berezi horri aurre egiteko adaptazio edota doikuntzarako behar

ugari barneratuta zeuden. Hasieran jakin bagenekien ez genuela “betikoa” egingo eta, pandemia egun batetik bestera gainera erori zitzaigunean, azkar jakin izan genuen erreakzionatzen eta ibilbide berriari eusten. Pandemiak gauza garrantzitsu bat erakutsi digu: zailtasunetatik ere ikasi eta altxa egin behar da. Erresilientzia gure dinamikan ere barneratu genuen.

Josu: Antolatzen hasi ginenean, iazko udan, pandemia amaituta zegoela uste genuen. Azaroko aurkezpen ekitaldiarekin batera seigarren olatua deiturikoa hasi zen... Hiru hilabetez ezin izan genuen ezer egin, eta urte osoan antolatuta genituen ekimenak hilabete gutxitan kontzentratzea ekarri zuen. Mikelek esan bezala, moldatzen jakin dugu. Bestetik, bi urteko pandemia batetik gatoz, eta honek gizartean eragina utzi duelakoan nago.





“Eguna”: zer espero dezakegu?

Josu: Memorian denbora iraungo duen eguna izatea nahi dugu, jendeari egun pasa bikaina igarotzeko osagaiak eskaintzea, eta norberak egitea bere errezeta. Goizean goiz hitzaldiak egongo dira, gastronomia aukera oso zabala, musikaren ibilbidea egongo da, sormenaren gunea, kanpo espazioaren hausnarketa, baso magikoa, piper ibilbidea, euskal joko eta jolasak, Txoria txori denok abestea... Jendearentzat egun berezia izatea nahi dugu.

Mikel: Bai, Josuk dioen bezala, egun ahaztezin bat sortu nahiko genuke eta horretarako emozioak piztu nahi ditugu. Nola? Ludikotasunaren bitartez. Jaiak dibertigarria izan behar du; izan ere, dibertitzen garen bitartean uneaz gozaten dugu eta Kilometroak ikastolen aldeko jaiak denez, une gozagarri horien

bitartez, Euskal Hezkuntza nazionalari atxikitzeko giroa sortu nahiko genuke. Euskararen aldeko “plazak” dira ikastolen aldeko jaiak. Jaiak bai, baina ahaztu gabe jaiak duen aldarrikatzeko xedea!

KMK 2022k dagoeneko mugarri bat jarri duelakoan zaudete?

Mikel: Zaila da alde zurretik mugarria izango dela esatea. Gainera, hori guri ez dagokigu. Jaiak amaituta, jendearen feed-back-a jasotzea espero dugu. Bertatik jasoko dugu ekarpen garrantzitsuena datorren urtean Erretereria-Oreteran antolatuko dugun Kilometroak horretan jaso eta barneratu beharrekoa izango da. Behin eta berriz honako hau azpimarratzen dugu: urtero egokitu eta doitu behar da eredu berrian oinarritzen den Kilometroak jaiak.

Josu: Nik ere ez dakit mugarría izango den, baina Kilometroak festaren historia markatuko duela esango nuke. Ez dakigu norabidean nola eragingo duen. Hala ere, martxan jarri dugu teoria hutsa zena. Ekimen hauekin hausnartzen jarraitzeko elementuak utzi ditugu.

Ikastolen festa antolatzea ez da inoiz makala izan. Zer erakutsi dizue aurtengoak?

Josu: oraindik auzolan izugarriak antolatzeko gai gara euskal gizartean. Lan asko egin du jendeak, urte osoan denda irekita, tanta eta denda irteerak, batzordeen martxa... Bestetik, ekimenekin hasi aurretik zer nahi genuen irudikatzeak ere lagundu digu, horretarako denbora hartzea baliagarria izan da. Eta amaitzeko, festen garrantzian jarriko nuke azpimarra. Festetan emozio eta bizipen asko egon ohi da, aurten herritarrek protagonismoa izan dute, kultura eta euskal kulturaren erresistentzia ere bada mundu globalizatu honetan...

Festek komunitatea egiten dute eta komunitate horri balio batzuk aportatzen saiatu, eta ondo pasatzearen garrantzia honek denak martxan jarraitzeko.

Mikel: Kilometroak festaren antolaketa ezberdina izaten da urtero, Kilometroak ezin baita modu "prefabrikatua" herri batetik bestera eraman eta montatu. Ibarren antolatzeak potentzial ikaragarria dauka, indar guzti hori ageri atera eta urte osoko ekintzen bitartez azpimarratzen jakin behar da. Maiz diogu: "Ikastolak herriko harrobi kulturalak dira".

Aurtengo jaiaren ezaugarri azpimarragarrienak bi izan dira: sormena eta kemena. Auzolana eskatzen duen dinamika honetan, urtea luze egiten da eta ezin da ukatu nekea metatzen joaten dela. Baina egindako esfortzua "liseriketa emozionala" egiterakoan, pozik, irribarra ahoan eta harrotasunez esango da: "Nik parte hartu nuen 2022an Ibarren antolatu zen Kilometroak jaietan".

Mantangorrik 1.000 ESKAINTZA BEREZIA

Gaztetxoan artean
euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko

BERRIAren
asteburuko harpidetza
6 hilabetez, 50 euroan

berria zuk badakizulako



Egin harpidetza

Berria.eus/mantangorrieskaintza
(0034) 943-30 43 45

BABESLEAK



ERAKUNDEAK



LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK



Kilometroak

20022KO URRIAREN 2AN IBARRAN



ERASO SEXISTARIK EZ!!

Jaiak aske bizi eta gozatu




urriak 16

P	APATTA	43° 07' 33.7" N	2° 03' 40.7" W
P	EGIALDE	43° 08' 07.2" N	2° 03' 25.9" W
P	EGOKITUA	43° 07' 56.4" N	2° 03' 34.1" W
P	AUTOKARABANAK	43° 07' 53.8" N	2° 04' 08.1" W

kilometroak.eus

HAINBAT EKITALDITAN APUNTATU EDO SARRERAK EROSTEO SARTU kilometroak.eus ORRIAN: KANTU BAZKARIA, HITZALDIETARAKO GONBIDAPENAK, PIPAR IBILBIDEA, BASO MAJIKOA ETA HERRI JANTOKIA.



Euskal musika ibilbidea **BADOK**

- 10:45 **MUNDUKO IRRIBARRAK DANTZA IKUSKIZUNA** (PLAZA)
- 12:15 **BATUMORE** (PLAZA)
- 13:00 **XSAKUZA** (EMETERIO ARRESE)
- 13:30 **DIABLUES + BLUEZIFER** (IKASTOLA)
- 14:00 **XIBEROOTS** (PLAZA)
- 15:00 **DJ BULL** (IRRIBARRA TABERNA)
- 15:30 **DISTOPIA ELEKTROTARANGA** (PLAZA/AZKUE)
- 16:00 **GABEZIN ERROMERIA** (IKASTOLA)
- 16:30 **ANDONI OLLOKIEGI** (AZKUE)
- 17:00 **NIKOTINA** (PLAZA)
- 17:00 **GO!AZEN** (IKASTOLA)
- 18:00 **DUPLA** (EMETERIO ARRESE)

Gastronomia

- ARRAIN PARRILA** (EMETERIO ARRESE)
- IRRIBARRA ENTSALADA** (IKASTOLA)
- EUSKO LABEL** (IKASTOLA)
- OGITARTEKOAK** (PLAZA/EMETERIO ARRESE)
- TALOAK** (AZKUE)
- PIPAR IBILBIDEA** (EMETERIO ARRESE)
- HERRI BAZKARIA** (KIROLDEGIA)
- PIPAR DASTAKETA** (PLAZA)
- KANTU BAZKARIA** (XEPLA ELKARTEA)

TXORIA TXORI

12:00TAN GUNE GUZTIAN TXORIA TXORI ABESTIA KANTATUKO DUGU

Jolas eta jokoak

- eroski** **fundazioa** **elikadura tailerra** (IKASTOLA)
- ERRONKA**
- KAIKU ELIKAGAIEN TAUPADAK** (IKASTOLA)
- KUTXA FUNDAZIOA EKO GUNE** (IKASTOLA)
- BIHOTZ URDINA HAUREN BASOA** (11:00-16:30 BASO MAJIKOA)
- EUSKAL JOKO KIROLAK HELDUEN HERRI KIROL TOPAKETA** (KIROLDEGIA)
- LABORAL KUTXA HAUREN HIRIA "AMELI ETA XIRRIKITUEN JOSTUNEK" IPUIN KONTALARI MUSIKATUA** (IKASTOLA/IGLUA)
- EUSKALTEL TXIRRINDULARITZA PISTA** (KIROLDEGIA)
- ESKALADA + TXIRRINGA TRIAL IRENE CAMINOS + "CARVE" PATINETEA** (KIROLDEGIA)

Sormena

- ZIRKUOLA EMANALDIA ETA ZIRKU MATERIALA** (11:00 EMETERIO ARRESE)
- HITZALDIAK 11:00TAN JAKOBA ERREKONDO ETA JAVI "AMA" (IKASTOLA) + GORKA EGIA (PLAZA TXONTXO) + NEREA MENDIZABAL (PLAZA)**
- HARITUZ BERTSO TAILERRA** (11:00 AZKUE)
- NUMEN DANTZA TAILERRA** (13:00 AZKUE) (14:30 EMETERIO ARRESE)
- ARTISAU AZOKA + ESKULTURAK SORMENA** (AZKUE)
- IRIBARTEA ERAKUSKETA ETA SORMEN TAILERRA** (AZKUE)
- TXIKIREN UMOREZKO BAKARRIZKETA "40 URTE ETA ALDAPAN BEHERA"** (14:30 AZKUE)
- BIZIENEA: AHOTSAK PLAZARA** (11:00-14:00 IRRIBARR TABERNA)
- ALURR DANTZA TALDEA "ITSAS LAPURRAK"** (16:00 EMETERIO ARRESE)

Zatoz irri eginez!

Aizpurua Autobusak
Kilometroak 22rekin



Tel.: +34 943 36 32 90 www.autocares-aizpurua.es



GARBITU
INDUSTRIA GARBIKARIAK

- ▶ BIZKAIA 94 671 48 48
- ▶ GIPUZKOA 648 741 881



LemuGroup

EUSKARAZ KIRIBILTZEN

Baratzondo 5 (Pol. Ind. Apatta) 20400 IBARRA
www.lemugroup.com



**jasangarriak eta
kalitatezkoak diren
produktuak egiten ditugu**

Gabarrari Kalea nº11, 20280 HONDARRIBIA 943 213 671

Doblehilo



txoria txori


“kantatzen duen herria
ez da inoiz hilko”

Eguerdiko 12:00tan, Kilometroak egunean, dena geratuko da Ibarran. Abestuz, gune guztiak elkartzea da helburua. Ereserki bat balitz bezala, “Txoria-txori” abestia kantatuko dugu. Esaerak dion bezala, “kantatzen duen herria ez da inoiz hilko!”



NOIZ
Kilometroak eguna
(urriaren 2a)
ORDUA
Eguerdiko 12:00tan
GUNEA
gune guztietan

eten puntuak



...arkitektura...barne diseñua...

jon arruebarrena
666.045.828
arkitektoa

david prados
615.735.926
diseñatzailea

igor lacarra
630.579.394
obrak



PIPARRAREN IBILBIDEA



Ezagutu Ibarako piparraren inguruko historia eta kultura ibilbide bizi batean, non musika, antzerkia, dantza uztartu... eta nola ez, pipar dastaketak burutuko ditugun.

Baratze herria dugu Ibarra, piparrari esker mapan kokatua. Produktu honen kuriositate eta ezaugarrietan barneratuko gara eta aire libreko museo batean bilakatuko dira pipar sailak eta gure paisaia.



2.6 kilometroko ibilbidea izango da. 30 laguneko taldeetan egingo da gida batekin, eta bidean zehar, geldialdi edo gunek egongo dira: musikariak, dantza, antzerkia... Esperientzia turistiko honetan, ikasi eta gozatu egingo dugu. Kulturaz gozatzear gain, piparraren urteko zikloak ikasiko ditugu, anekdota eta istorioak ezagutu... eta piparra formatu desberdinetan dastatuko dugu. Baratzean zuek bildutako piparrak ere jango dituzue. Animatuko al zarete?

PREZIOA

- Haurrak (4-12 urte arte): 4 euro
- Gazte eta helduak: 8 euro

*piparra formatu desberdinetan dastaketa eta edaria barne.

Noiz?

Urriaren 2

ORDUTEGIA

Goizean:

- 10:30tan lehen taldea
- 11:00tan bigarren taldea
- 11:30tan hirugarren taldea

Nola apuntatu?

- <https://kilometroak.eus/ekitaldi-izenematea>
- Info gehiago: 669025330

GOMENDIOAK

- Arropa eroso eta zapatilekin egiteko ibilbidea.

ANIMATU PIPARRAREN ESPERIENTZIA
EZAGUTZERA! IKASI, DASTATU ETA GOZATU!





GASTRONOMIA ESKAINTZA ZABALA BERTAKO PRODUKTUAK OINARRI

Kilometroak urtea diseinatzen hausnartuz hasi ginen, eta gastronomia izan zen puntu horietako bat. Ibarra baratza herria da, piparra ikur duena, eta gure herrira datozenei, gu garena erakutsi nahi genien. Hala, orain arte txosna batzorde zena gastronomia batzorde bilakatu da.

Bertako produktuak kozinatu ditugu urte osoan, eta bertako produktuak eskaini nahi ditugu Kilometroak egunean ere. Inguruko produktuak bultzatzeak eragina du paisaian, baserrietako bizitzan, gure osasunan... eta hala, ekonomia zirkular horretan eragin dezakegu.

Ibarrako ikastolak ere aspaldi egin zuen apustu bere jantokia izateari. Herriko komertzioetan jakiak erosi, eta goizero, usain desberdin batek hartzen du ikastolako sarrera. Gure erosketa eta erabakiek eragina dute inguruan, eta gure ikasle eta langileek ere etxean bezala jaten dute ikastolan. Ez diegu gure ikasleei teoria bakarrik erakusten, praktikarekin ere bizipenetan eta etorkizuneko erabakietan eragiten ari gara.

Kilometroak egunean bertan ere, honek denak islada izatea nahi dugu, eta horretarako eskaintza zabala prestatu dugu zuentzat: Irribarra entsaladak, paella, parrillak, pipar gunea, bokatak, Joxelun saltxitxak... ezingo diozue tentazioari eutsi.

Osagai desberdinak jarri ditugu Kilometroak guneean, zuen eskura dago zerekin gozatu. ON EGIN!!

1 GUNEA: UZTURPE IKASTOLA

"Irribarra" entsalada eta Ibarrako baratzetako tomatea eskaintzearekin batera, "Eusko label" gunea egongo da bertan, bertako haragia parrilan prestatuz. Eta jaki hauetaz gozatzeko, merendero polita prestatu dugu.

2 GUNEA: POLIKIROLDEGIA

1000 pertsonentzat paella jana. Frontoian mahaiak egongo dira eroso bazkaltzeko. (Erosi txartelak alde zurretik edota egunean bertan). <https://kilometroak.eus/ekitaldi-izenematea>

3 GUNEA: AZKUE

Taloak

4 GUNEA: PLAZA

Pipar gunea: pipar frijitua, gilda, piparra oliotan eta Barrilaren txistorra berdea.
Bokata gunea.

5 GUNEA: EMETERIO ARRESE

Xubero saltxitxa gunea
Sardina freskue eta hegaluze burgerrak parrillan
Bokatak
+ kantu bazkaria

Gastronomiaz gozatzeaz gain, mahaiaren bueltan abesteak sortzen duen plazera eskainiko dizuegu. Animatuko al zarete Euskal Herriko lagun desberdinekin abestera?

Apuntatu:

<https://kilometroak.eus/ekitaldi-izenematea>

Gunez-gune, musika estilo desberdinak josiz, euskal musika protagonista izango duen bidaia izango da Kilometroak eguna. Baina zer da euskal musikaren ibilbidea? Gune konkretu batean musika guztia pilatu ordez, gune desberdinetan eskaintza zabaltzea dugu helburu; modu dinamikoagoan musika eskaini eta musika estilo desberdinez gozatzeko aukera zabaltu nahi dizuegu. Jendea gune batetik bestera mugimenduan ibiltzea dugu helburu.

“Badok” euskal musikaren atariak babestuta, egun osoan musika menu desberdin zabala izango dugu gune desberdinetan. Euskal musikaren plaza izan gara eta izaten jarraitu nahi dugu.

- 10:45 MUNDUKO IRRIBARRAK DANTZA IKUSKIZUNA (PLAZA)
- 12:15 BATUMORE (PLAZA)
- 13:00 XSAKUZA (EMETERIO ARRESE)
- 13:30 DIABLUES + BLUEZIFER (IKASTOLA)
- 14:00 XIBEROOTS (PLAZA)
- 15:00 DJ BULL (IRRIBARRA TABERNA)
- 15:30 DISTOPIA ELEKTROTXARANGA (PLAZA/AZKUE)
- 16:00 GABEZIN ERROMERIA (IKASTOLA)
- 16:30 ANDONI OLLOKIEGI (AZKUE)
- 17:00 NIKOTINA (PLAZA)
- 17:00 GO!AZEN (IKASTOLA)
- 18:00 DUPLA (EMETERIO ARRESE)

gertu INPRESIClanak

inprimategia



ALDIZKARIAK



LIBURUAK eta KATALOGOAK



AGENDA eta EGUTEGIAK

“gazteek kontsumo arduratsu bat izatea nahi dugu”

Gazteen artean kontsumo arduratsua sustatu nahi dute, eta horretarako Kilometroak egunaz harago joan daitekeen lanketa egiten ari dira.

Zer lanketa egin duzue orain arte?

Prebentziorako unitate didaktiko bat eta komiki bat prestatu ditugu. Beti esaten dugun moduan, hau elkarlan bat da eta gure nahia eta beharra orain datorren ikasturtera begira ikastetxe bakoitzean irakasle baten konpromisoa jasotzea da. Irakasle horrek bi orduko ikastaroa jasoko du eta gaia ikastetxean landu beharko du. Guk egindako lanari ez bazaio jarraipenik ematen, honek guztiak ez du zentzurik izango.

‘Ondo pasa, pasatu gabe’ unitatearen jarraipena egin duzue, ezta?

Unitate didaktiko horri materiala gehitu diogu, gaia landu ahal izateko bost podcast eta komiki bat prestatu ditugu. Hori guztia landu ahal izateko irakasleak behar ditugu. DBHko ikasleekin gaia landu behar dute.

Beste aisialdi mota bat posible dela ikustarazi nahi duzue.

Kontsumo arduratsu bat izatea nahi dugu. Gehienak erizain eta medikuak gara eta gure lanaren atal handi bat osasun hezkuntza da, eta Kilometroak jaia aitzaki hartuta DBHko gazteei kontsumo mundu horretan osasun hezkuntza eman ahal izatea da gure helburua. Beti esaten dugu hezkuntza etxean hasten dela, baina jarraipen bat egon behar da ikastetxean.

Oinarria izan daiteke beste hitzordu batzuetan lantzen joateko.

Balio beharko luke beraiek konturatu ahal izateko kontsumo arduratsu bat aukera ematen diela festaz gozatzeko eta edozein asteburu edo festetan aplikatzeko.

Laguntzailearen figura sartu duzue, zein da bere egitekoa?

Laguntzaileak gazteak izango dira, festan egongo direnak, besoko bat eramango dute eta prest egongo dira galduta edo dena delakoa dauden gazteengana gerturatu eta laguntzeko. Gazteek eurengana jo dezakete ere dituzten kezka adieraztera.



Aitziber Lizartza Etxebeste
Prebentzio eta osasun batzordea

Eta gazte horiek, laguntzaileek, badakite nola lagundu?

Ikastaro bat jasoko dute gazteengana nola gerturatu edo nola lagundu jakiteko. Helburua da ikasleak ikastoletan nolabaiteko prestakuntza bat jasotzea, gaia lantzea, azken finean. Ideiak partekatuko dituzte, iritzi desberdinak gurutzatu...

Gazteek protagonismo hori hartzea ezinbestekoa izango da eurengana iristeko.

Oso garrantzitsua da hori, eta horretarako ezinbestekoa da gaia aurrez ikastetxeetan lantzea. Horretarako material guztia banatuko da; komikia, podcast-ak eta unitate didaktikoa. Alkoholaren kontsumoa, tabakoa, sexualitatea errespetuz... gaur egun bolo-bolo dauden gazteen arteko gai horiek landuko dira.

Orain arte sukaldako lana egiten egon zarete, eta irailean gorpuztuko da.

Helburua hori izan da, guk material guztia prestatu dugu eta orain baliabide horiek erabili behar dira. Guraso bezala etxean badugu lana. Eta egunean bertan laguntzaileen aldeko apustua egin dugu. Honekin guztiarekin egunean bertan gazteak gozaten ikusten baditugu eta gazte gutxi artatu behar baditugu, helburua bete dugula esan ahal izango dugu.

Prebentzioa landu duzue orain arte, eta orain zer?

Orain gutxi gorabehera badakigu eguna bera nola antolatuko den, ze guneetan egongo den festa, eta orain egunean bertan osasun harreta egoki bat emateko antolatzen ari gara. Orain arte taldean zortzi pertsona geunden, eta egunean bertan taldea handitu beharko dugu. Egunari begira 3 osasun gune jarriko ditugu eta jendea behar dugu. Gure plangintzaren arabera bederatzi mediku eta hamazazpi bat erizain beharko ditugu, eta horretan ari gara; materiala lortzen ari gara, lekuak prestatzen eta profesionalen arteko komunikazioa lantzen.

“pertsona guztien parte hartzea bermatu nahi dugu”

Kultur aniztasun handia duen herria da Ibarra eta Kilometroek horren isla jaso behar dute, ezinbestean. Gaia lantzen duen batzordeak helburu argia du: kultur aniztasun horretan azpimarra jarri eta herritar guztiak komunitateko parte direla sentiaraztea.

Urte guztian zehar lantzen ari zareten gaia da kulturartekotasunarena, baina nola gorpuztuko da Kilometroak egunean?

Urte guztian egin dugun saretze lan txiki hori lehendik hasita zegoen, baina aurten indarra eman nahi izan diogu eta egunean bertan saretze lan hori islatu nahiko genuke. Ikastolako komunitatea oso anitza eta aberatsa da, eta aniztasun hori ikusarazi nahi dugu. Aberastasun eta komunitate lan hori egunean bertan lanean gaudenon artean ikustea nahi dugu eta ez zerbait puntuala izatea. Ekintza zehatz batzuk antolatu baino, ekintza guztietan komunitatea osatzen duten kultura guztietako pertsonen parte hartzea bermatu nahi dugu.

Normaltasuna. Hori islatu nahi duzue.

Komunitatea osatzen dugun kultura guztiak edozein batzorde eta zereginetan ikusi nahi ditugu, horretan eragin nahi dugu. Elkarrekin eroso egotea nahi dugu.

Ikastolako gela guztietan dago aberastasun handia. Nola bizi dute hori ikasleek?

Elkarbizitzen ari gara, hori da bidea, aniztasuna modu naturalean bizi behar dugu eta ekarpen modura ikusi, eta ikasleek normaltasunez bizi dute. Saretze lana egiten ari gara, hori da lehen pausoa, eta bide horretan ekintza puntualek garrantzi handia dute. Munduko Gastronomiak Ibarran azoka oso polita izan zen, saretzeko eta harremantzeko aukera eman zuelako, baina harago joan behar gara. Denak gara ikastola eta denon arteko nolabaiteko ezagutza egiten ari gara.



Ixiar Urkola Goenaga
Kulturartekotasun batzordea

Esan beharra dugu aurretik ere herrian bazegoela lanketa bat eta hori baliatu dugula. Kilometrotan beste bultzadaxo bat eman nahi genion elkarbizitzari.

Hizkuntza izan daiteke muga bat, edo ez? Erronka bat da, egia da. Batzuetan komunikazioa ez da erraza izaten, baina ari gara, beti dago irribarrea eta komunikatzeko gogoia. Askotan gaztelaniara jotzen dugu lehen harreman hori egin ahal izateko, baina euskara da gure ardatza eta horretan eragiten ari gara. Ibarra Ueman sartu da eta lanketa bat egiten ari gara elkarrekin. Euskararen presentzia areagotzea da erronka, baina egia da ez dugula kontrako jarrerarik jaso, alderantziz. Ibarran badugu Auzoko egitasmoa euskara mahai gainean jarri eta elkarrekin euskaraz hitz egiteak sortzen duen dinamika bultzatzen duena, eta horri eutsi behar diogu. Hizkuntza guztiak eta aniztasun guzti hori errespetu handiarekin jasotzen ditugu, baina euskarari indarra emanez. Hor dago erronka.

“gune guztietan egongo dira ekitaldiak”

Adin, gustu eta kolore guztiak hartu dituzte kontuan ekitaldiak antolatzeko. Bost gune izango ditu Kilometroak jaiak eta guztietan egongo dira parte hartzea eskatuko duten jarduerak.

Orain arte hamaika ekitaldi egin dituzue. Baina potoloena iristear dago, nola irudikatzen duzue Kilometroak eguna?

Maiatza bukaeran jarri ginen egunera begira eta horretan gabilta musika taldeekin, ipuin kontalariekin, antzerki taldeekin eta abarrekin hitz egiten eta guztia lotzen. Uste genuen urriaren 2a urruti zegoela, baina iritsi da.

Adin guztiei zuzendutako eta arlo desberdinak biltzen dituzten ekitaldiak antolatu nahi dituzue. Ez da erraza izango...

Egun guztirako ekitaldiak lotu behar dira eta eskaintza zabala osatu. Lan asko egin behar da; aurrekontuak eskatu, hitzorduak lotu, ordutegiak bateratu, oreka zaindu... Batzordean lauzpabost pertsona ari gara koordinazio lanetan, baina pertsona gehiago behar dira eta gurasoekin eta herriko eragileekin batera ari gara lanean.

“3 guneetan egongo dira arropa salmentarako postuak.”

Nola antolatu zarete urtean zehar arropa saltzeko?

Alde batetik *Iribarra* denda fisikoa ireki genuen azaroa bukaeran eta goiz eta arratsaldeko txandak eginez, urte guztian zehar denda irekita egon da astelehenetik larunbata bitarte. Online denda ere martxan jarri genuen, gure eskeintza zabaltze aldera, beharra ikusi bait genuen. Honen ondotik, irteerak izan ditugu, Gipuzkoako txoko gehienetara iristea izan da gure helburua eta hilabete bakoitzean ikastolako maila baten ardura izan da festa eta azoka ezberdinetara irteerak egitea. Ikastola ezberdinek ere parte hartu izan dute arropa salmentan, bertako ikastolan edo jaietan postua jarrita. Ibarako ikastola txikia izaki, laguntza oro asko eskertu dugu.



Mainer Lopetegi Nieto
Ikuskizun batzordea

Nolako eskaintza osatu nahi duzue?

Naziogintzari garrantzia ematen ari gara, inguruko sortzaileei tokia egin nahi diegu, generoa zaintzen ari gara... Ez da erraza, baina ari gara. Kontaktuak lortzen ari gara batetik eta bestetik, Galtzaundi Euskara Taldeak osatu duen Sortzaileen Gida oso erabilgarria izaten ari da.

Irudikatzen al duzue Kilometroak eguna?

Ekitaldi pila bat irudikatzen ditut, adin guztietarako eta gustu guztietarako. Bost gune izango ditugu eta guztietan egongo dira ekitaldiak. Parte hartzea sustatu nahi dugu eta ez ikuskizun hutsak antolatu.



Mainer Perez
Arropa batzordea

Zein izan dira gehien saldu diren jantziak?

Haurrentzat kamixetak eta izerditakoak, kolore ezberdinak izan ditugu urtean zehar eta egia esan denak arrakastatsuak izan dira. Haurrek beraiek proposatutako diseinuekin egin dira haietako batzuk. Helduentzat aldiz, gehien kamixeta beltza eta izerditako okrea. Benetako arrakasta izan dira.

Kilometroak egunean zer nolako aukera izango da arropa erosi nahi duenak?

3 guneetan egongo dira arropa salmentarako postuak, beraz urtean zehar gure produktuak erosteko aukerarik ez duenak izan, egunean bertan aukera zabala eskeiniko dugu. Goiz ibili, bukatu aurretik!

“beste aisialdi mota bat bultzatu nahi dugu”

Haur eta nerabeen artean parte hartzea sustatu nahi dute. Aisialdia modu aktiboan bizitzea nahi dute eta horretarako gaitasun guztiak balekoak direla ikasgarazi nahi dute.

Zein da batzordeko egiteko nagusia?

Erronka da ekimen nagusia, baina horrekin batera Haurren Hiria egitasmoa ari gara antolatzen, eta baita Baso Txikia ere.

Banaka joango gara. Zer dira Haurren Hiria eta Baso Txikia?

3 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako guneak dira. Haurren Hiria egitasmoaren barruan jolasteko gune askeak osatuko ditugu eta horretarako helburu batzuk izango dituzte. Jolas sinbolikoan oinarritzen diren guneak izango dira eta material birziklatuarekin egindako materiala izango dute oinarri. Eraikuntza moduko batzuk egin ahalko dituzte.

Baso Txikia Haurren Hiriri lotuta dago. Ikastola inguruan badugu baso txiki bat eta gune bat prestatuko dugu bertan. Oreka jolasak izango dituzte, slackline egin ahalko dute... baita ipuin kontalari bat ere. Haurrak taldeka banatuko ditugu eta aurrez eman beharko da izena. Helburua da txikienek festan aktiboki parte hartzea.

Umeei begirako betiko puzgarriak ordezkatu nahi izan dituzue.

Normalean puzgarriak eta antzekoak egoten dira horrelako egunetan eta ez dute helburu pedagogikorik eta nahiko pasiboak dira. Beste aisialdi mota bat bultzatu nahi dugu.

Eta zer da Erronka?

Baso Txikia eta Haurren Hiria 3 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutakoak dira, eta Erronkan 14 eta 16 urte arteko gazteek hartuko dute parte. Tolosako Laskorain ikastolak antolatutako Kilometroak festan egin zen lehen aldiz.



Xabier Ibarra Lazkano
Euskal joko, jolas eta kirolen batzordea

Gipuzkoako 20 ikastolak eman dute izena eta beraiek osatuko dituzte taldeak. Lehia formatuan egiten den lehiaketa bat da eta zazpi froga egin beharko dituzte. Helburu nagusiak dira nerabeei ere egun horretan protagonismoa ematea, beraien presentzia bermatzea eta Gipuzkoako ikastola ezberdinei Ibarra etortzeko gonbita luzatzea.

Zer motatako frogak izango dituzte?

Garbi geneukan frogak ez genituela lehia fisikora mugatu nahi eta beraz sormenarekin lotutako frogak egongo dira eta gastronomiak ere izango du bere lekua. Froga guztietan Ibarra ezagutzeko baliabide edo estrategiak sartu ditugu ere.

Aurreratu daiteke zerbait?

Ibarra ezagutzeko orientazio froga egongo da, piperrekin zerikusia duen beste bat, zerbait margotu beharko dute, herrian bolo eta tokak badu bere lekua eta izango du bere tarte...



“Jendea Ibarako Kilometroak jaitik zapore onarekin joatea duagu helburu”

Iñigo Yurrita
Gastronomia batzordea

Iñigo Yurrita (1974) 2006. urtean hasi zen Ibarako ikastolan sukaldari gisa. Egutero bazkaltzen ematen die bertako ikasleei, hainbatetan ia 200 ikasleri. Herriko harategietan erosten dute haragia, eta barazkiak inguruko baserrietan. Bertan erosi eta kozinatzeaz duen garrantziaz jakitun, aurtengo Kilometroak jaiaren gastronomiak eta bertako produktuek garrantzi berezia hartu dute: Horretan aritu dira, buru-belarri, gastronomia batzordean.

Kilometroak eguneko gastronomia eskaintzari buelta ederra eman diozue.

Naturalki atera zaigu. Gastronomiaren garrantziaz jabetzen gara, gure egunerokotasunean ikastolan bertan prestatzen ditugu bazkariak bertako produktuekin, eta Kilometroak egunean ere, hori erakutsi nahi dugu: bertakoa, sukaldean prestatu.

Urte osoan ere eskaintza polita izan da.

Bai, azkenean ekimen guztietan agertzen da gastronomia zuzenean edo zeharka, eta saiatu gara ahalik eta eskaintzarik goxoa eta gure herriarekin lotura duena eskaintzen.

Zer topatuko dugu Kilometroak egunean?

Aukera zabala diseinatu dugu egun horretarako, hasi “Irribarra” entsaladatik, eta kantu bazkarirarino: bokatak, Joxeluren saltxitxak, taloa, eusko label gunea, paella, eta itsasoko produktuak parrilan... eta nola ez, Ibarren egonda, “pipar gunea”. Elkarte batean “kantu bazkaria” eskainiko dugu, gastronomia eta kantua uztartuz.

Pipar gunea?

Herriko plazan pipar frijituak, piparrak oliotan, gilda eta Barriolaren txistorra berdea prestatuko ditugu bisitarien gozamenerako.

Zein osagai ditu “irribarra entsaladak”?

Ibarako baratzak eta identitatea ordezkatzeko dituguen osagaiak ditu: herriko letxua eta tomateak, eta gilda baten osagaiak: atuna, piparra, antxoa... eta baita pipar hautsa eta guk sorturiko ozpin-olio saltsa.

Jendea bokata gabe etorriko da aurtengoan!

Bai, jendeak gozatzea dugu helburu, eskaintza zabalarekin eta kalitatezko produktuak, patrika guztientzat egokia den aukerarekin. Jendea Ibaratik aho zapore onarekin joatea dugu helburu.


@bihotz.urdina

www.bihotzurquina.com



Bihotz urdina

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
AQVARIVM



LABORAL
kutxa

Bihotz Urdinaren Lagunak elkarteko kide izateko, jarraitu <https://www.bihotzurquina.com/bihotz-urdinaren-lagunak/> esteka eta bete formularioa, egiten ditugun jarduera guztiak kontatuko dizkizugu eta opari zoragarrien zozketetan sartuko zara.



DORTOKA

BAZENEKIEN?

- Dortokak urte asko bizi izaten dira, eta haietako batzuek 50 urteko adina ere gaindi dezakete.
- Itsas dortokek 100 milioi urte baino gehiago daramatzate Lur planetan; izan ere, izakirik zaharrenetakoak direla uste da.
- Arrautzatik irteten diren 1.000 dortokatik bat soilik heltzen da helduarora.
- Dortoka arrak ez dira inoiz ozeanotik irteten; emeak arrautzak errutera bakarrik irteten dira.



Bihotz urdinaren
lagunak

kafe hitzaldiak eguna hausnartuz hasteko

Hiru hitzaldi eskainiko ditugu Kilometroak egunean. Kafetxo baten bueltan, gai interesgarriak izango ditugu mahai gainean, solasaldiak izango dira, jendeak parte hartzeko aukera izango duelarik. Zein hitzalditara joango zarete? Aurretik apuntatzea komeni da (<https://kilometroak.eus/ekitaldi-izenematea>). Kafea gure kontu, noski!

“BARATZETIK GASTRONOMIARA: IRAULTZARAKO GAKOAK” KAFE-HITZALDIA
HIZLARIAK: JAKOBA ERREKONDO ETA JAVI RIVERO
NON: UZTURPE IKASTOLAKO KAFE GUNEA
ORDUA: GOIZEKO 10:45TAN

“EKOLOGISTA NAIZ BAINA...” HITZALDI PARTE-HARTZAILEA
HIZLARIA: GORKA EGIA ARREGI
NON: TXONTXO LOKALAK
ORDUA: GOIZEKO 10:45TAN

“10 PILULA ONGIZATERAKO” SOLASALDIA
HIZLARIA: NEREA MENDIZABAL
NON: KULTUR ETXEA
ORDUA: GOIZEKO 10:45TAN

gau beltza herriarentzat

Kastola batek Kilometroak jai antolatzeko ardura hartzen duenean, utziko duen arrastoa izaten du jomuga. Aurten ere, hainbat ondorio aurreikusi daitezke: batetik, jendearen harremanak bultzatu eta topaguneak sortzea, auzolan eta jaiaren bueltan (jende askok komentatu digu: lehen agurretik soilik ezagutzen zituzten herritarrak lagun dituztela eguna). Bestetik, esperientzia eta ekimen gogoangarriek seinalea memoria utziko digutelakoan gaude.

Hori dena eta gauza gehiago utziko ditu Kilometroak jaiak. Hau dena aurrera ateratzeko herritar ugari lan egin dute, hasi ikasleetatik, guraso, irakasle, herriko eragile... eta herritar askorekin bukatu. Esker oneko ekitaldia egitea gustatuko litzaziguke, eta hau dena festa giroan burutzea.

Gau Beltza erritua burutuko dugu Ibarren. Ospakizun hau ere herrian uztea izango litzateke gure nahia.



TRADIZIO BERSORTUA

Kilometroak jai bersortu dugun moduan, Gau Beltza ere gure tradizioen berrinterpretazioa da, non lehengo Euskal Herriko hainbat herritako ohitura eta pentsamenduak gaurkotu, eta egungo ikuspegitik ospatuko ditugun.

Haurrak protagonista ditu jai honek, baina helduak ere konplize izatea gustatzen zaie haurrei. Mozorroaren xarmarekin batera, baratzeko kalabazak hartu, hustu eta aurpegi forma eman ostean, bide ilunetan jarriko ditugu. Neguan sartzeko festa izateaz gain, heriotzaren inguruan hausnartzeko egunak izan ohi dira. Sustoak, haurrak protagonista, mozzorrotuta herritarrak eta sorpresa asko izango ditugu.



Diseinua, ingeniaritza eta fabrikazio aurreratua askotariko sektoreetarako.

Soluzio aurreratuak sektore hauetarako, besteak beste, automobilgintza, osasuna, sarbideen kudeaketa, mugikortasuna, energia berriztagarriak, azpiegitura kritikoak, meatzaritza eta aeronautikarako.




www.erreka.com



UNIBERTSITATE GRADUAK

Learning from reality



www.mondragon.edu

INGENIARITZA
EKINTZAILITZA
ENPRESA KUDEAKETA
HEZKUNTZA
HUMANITATEAK
KOMUNIKAZIOA
GASTRONOMIA

